

Eider Rodriguez
urtebetetze festa · birthday party



 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Edizio hau elebiduna da. Eider Rodriguezen ipuinak **euskaraz** irakurri nahi badituzu, esteka honetan sakatu, mesedez:

[urtebetetze festa](#)

Urtebetetze festa ipuinaren audioa [hemen](#) entzun daiteke.

Eta Eider Rodriguezekin izan dugun bideo-elkarrizketa [hemen](#) dago.

This is a bilingual edition. If you wish to read Eider Rodriguez' stories in **English**, please click on this link:

[birthday party](#)

The audio recording of 'Birthday party' is available [here](#).

You can see our interview with Eider Rodriguez [here](#).

EIDER RODRIGUEZ

urtebetetze festa

[Hitzaurrea](#)

[Hirugarren oparia](#)

[Kapitalismoa](#)

[Urtebetetze festa](#)

[Hitzatzea](#)

Ipuin hauek bilduma hauetan argitaratu ziren lehenengo aldian: *Haragia* (2007), *Katu jendea* (2010) and *Bihotz handiegia* (2017), hurrenez hurren. Booktegik **Elkar** eta **Susa** argitaletxeei berplazaratzeko eta itzultzeko baimena eskertu nahi die biziki.

Azala: Ramon Zabalegi

Itzulpenak: Sarah Turtle, Aritz Branton

Hitzaurrea

Munduarekin dialogoan

Fabrikatik ezegonkor, moldagarri, eszeptiko naizen honek zalantza handirik gabe esan dezake: Eider Rodriguez da bere belaunaldiko idazlerik kitzikagarrienetako bat, kitzikagarriena ez bada. Gezurra dirudi, baina hamalau urte joan dira lehen ipuin bilduma, *Eta handik gutxira gaur*, argitaratu zuenetik. Hazi baino ez da egin Rodriguezen ipuingintza orduz geroztik.

Horren froga izan daiteke ingelesera itzultzeko aukeratu diren hiru ipuinak *Haragia* (2007), *Katu jendea* (2010) eta *Bihotz handiegia* (2017) liburuetatik hartuak izana. Liburu bakoitzetik ipuin bana. Baina betiere ipuina, narrazio laburraren terrenoan aritu izan delako fikzioan beti, kasik kontrakarrean, nobela exijitzen den garaiotan.

"Hirugarren oparia", "Kapitalismoa" eta "Urtebetetze festa". Ez da hau ipuinok aletzeko lekua, ez galdu irakurtzearen plazera, baina ezin utzi esan gabe Rodriguezen egiteko moduaren erakusgarri direla. Interpretatu behar diren hitzak, keinuak, isiluneak; pertsonak -eskuarki gizonezkoak- zaintzen dituzten pertsonak -kurioki emakumezkoak-; nonbaiteko, erresuma baten parte sentitzen direnak; 45 urte elkar ukitu gabe egon izan diren aita-emeak; isiltasunaren halaber erresuman babes hartzen duten alabak; normala denetik aparte, arauz kanpo, bizi diren familiak.

Osagarri-edo, gero *Amama* filmean entzun ahal izan diren oihartzunak, gure iruditerian hamaika aldiz errepikatu diren kirolariak, dirua irabazi eta pilotzeko zaletasuna dutenak, Rafael Chirbesen hura gogoratzen duen padura usaina eta lupetzaren misterioa. Eta ezagun egiten zaizkigun paisaiak, mugakoak, Hendaiatik idatziak izan direnak; jakin gabe ordea Hendaian egonik Iruna begira, zehazki non gauden: Hendaian, edo Irunen bertan.

Hain zuzen Rodriguezen editore izan den Gorka Arresek esan du: "Orain, editatu osteko urratsak egiten hasi behar da, gure kultura gizartearen erdigunera ekartzeko, ardazteko eta munduarekin dialogoan hasteko". Zer hoberik, beren txikian, ingeleserako itzulpenok kanpoarekiko jardun horretan harri kozkor bat gehiago jartzeko.

Irun, 2018ko ekaina
Aritz Galarraga

Hirugarren oparia

Arrotza egin zaio aireportuaren zoko batean, metalaren erdian, eguzkiak argitu eta haizeak harrotzen duen ikurrina, eta birrikak txiki gelditu zaizkio ikuskizunarekin. Berriro da lau urte lehenago gurasoen etxea utzi zuen neskatoa, baina mendi eta lur usainak galduta.

Etxera deitu du, hiru bider, amak erantzun duen arte, hilabeteak hitzik ahoskatu gabe dirudienaren ahotsaz.

– Iritsi zara orduan?

– Bai. Galdeiozu aitari nire bila etor daitekeen Zarautzera.

– Galdetuko diot. Bost minutu barru berriro deitu, katxarro horietara deitzea garesti irteten da-eta.

Zarautzera iritsi bezain pronto aita agertu da Expressaren barruan, atzealdea zakuz beterik.

– Igo –esan dio ingude gaineko mailukada hotsez.

Irratian Ganbara taldearen balada bat.

– Plakatu haiz.

– Aspaldian ikusi gabe –erantzun dio alabak hiru kolpetan, eta gero ez da kasik ezer entzun errementerian, sugar saiatuak soilik labetik ihes egin nahian.

Saioak hanken artean helduta darama maleta, eta maldan gora zambuluka doan paisaje berdeari begiratzen dio, mendixketan jasotako etxe trinkoei, gaztainaz kargaturiko adar batek autoaren aurkako talkaz menia apurtu duenean.

– Osaba antzarak akabatzen utzi dinat. Azkenaldian langile zabilen eta aprobeixatu egin behar!

Herrira iristeko azken maldan gaztaina gudarosteak oldartu zaizkie, arantzak Saioa eta aitari itzulita.

– Bihar gaztainak biltzera etorri behar dinat.

Saioak ulertu du gonbidapen bat dela.

– Londonen ez dago gaztainarik, ba al zenekien?

Aitak balazta zanpatu du, eta furgoneta herriko plazako aieka batean geldiarazi.

– Ikusi al dun? –kultur etxe bihurturiko Jauregi Zaharraren atarian eraikitako aluminio eta beirazko igogailua erakutsi dio—. Modernoa.

Saioak ulertu du, aitak gustatuko zaiolakoan erakutsi diola igogailua, eta plazer eman nahi izan diola, nahiz eta badakien aitari higuigarria iruditzen zaiola, Jauregi Zaharrean halako espanturik.

- London ematen du.
 - Urte hasieran jarri zitenan. Etxe asko egin nahi ditizten. Modan jarriko dun herria.
 - Moda-modan.
- Saioa ohartu da ezer ez dela aldatu aitaren iseka airea, bere iseka airea, ezer ez.
- Aurrerantzean gazteek ez dituen Ingalaterrara alde egin beharko.

Expressaren balaztek garrasi egin dute: etxea du parez pare, zuri eta ilun, berde eta heze. Ama eta osaba atarian dira, ama gomazko goanteak erantzi gabe, osaba ganibeta eskuan.

- Ikusi Rogelio –esan dio aitak Saioari antzara lohitua erakutsiz, eta bat-batean izen horrek gordetako unibertsoak eztanda egin dio. Soroan korrika zoroan, antzara erraldoi bat lepoturik, biziaren azken bulkadak lumatza odolduan, antzara txikiago bat segika duela.

- Emaio! –oihu egin du osabak aitari.

- Plakatu zara –esan dio amak, Saioaren oinetan etzan denean antzara dekapitatua, sabelean oraindik bizia. Berea izan da lehen muxua, estua eta hezea–. Eta uztai hori?

Saioak sudurra zimurtu du eta behiak bezala egin du orro.

- Neska hau!

- Zer moduz dago señorita? –esan dio osabak, mahoizko galtzetan xukatuz eskuetako gorria, eta gero atximurka egin dio masailean; hainbesteko energiaz Saioari sudurreko uztaia dilindan gelditu zaio.

- Afari-merienda prestatu dugu.

Aitak hortzen arteko karraskila adarra ahoaren bestaldera eramanez segizioari buruzagitza jarri dio, iluna garaitzen ari den belarraren gainetik. Atzean utzi dituzte motzondo etsituak. Sukaldean gazta eta lukainka mutur bat jaten ari diren bitartean, amak ur irakinetan hondoratu du Rogelio, uzki horitua bistan, eta lumatzen joan da, kendutako luma sorta bakoitzaren ostean maleta askatu ezin duen alabari txeraz begiratuz. Aita-osabak mahaiaren bueltan dira, dena zain eta izerdi.

- Ohera noa, leher eginda nago.

- Osabaren logela patatarako erabili dugu, humedadeagatik, aitonarena txukundu dizut –erantzun dio amak.

– Ni zurean geldituko naiz –esan du osabak eta atximurka egin dio onik utzitako masailean.

Hil zenetik gutxitan aipatzen dute aitona. Aitaren aita zen baina amak zaindu zuen hil aurreko hemeretzi urteetan. Gangrenak hankak janak zizkion arren, batailak irabaztera ohitutako jeneral baten antzera gobernatzen zuen etxea zaharrak. Gero, gehiago zahartu zenean, burua erabat galdua, hitz egiteari utzi zion. Tuberkulu bat. Eta hala ere, etxe hartan izandako itzalak mehatxatuko balitu bezala zaindu zuten hil artean. Saioa txikitatik harritzen zuen amaren sakrifizio ahalmenak.

Aitak maleta logelara eramaten lagundu dio. Ama atzetik joan zaio, sukaldeko zapia amantaletik zintzilik, eta Saioa ohartu da Londonetik lehen aldiz etorri zenean ekarritako belarritakoak daramatzala jantzirik.

– Zer moduz reflexologia ikastaroa? –galdetu dio aitoren eske, aitak bakarrik utzi dituenean.

Amari, asaldatzen den guztietan bezala, ezpainak mokortu zaizkio:

– Ixo, ume, hauek ez dakite ezer eta.

– Oraindik ez? Eta nork eramaten zaitu Zarautzera?

– Aitak. Masajea hartzera eramaten nauela pentsatzen du.

– Esaiozu nire opari bat izan zela, nik ordaindu nuela ikastaroa.

– Belarriko minekin jarraitzen al duzu?

– Urtaro aldaketa bakoitzeko.

– Hori sendatzen ere ikasi dugu.

Gero atea itxi du eta Saioa bakarrik gelditu da. Animaliak bezala mugitzen da ama: zehaztasunez, baina zaratarik atera gabe; geisha baten antza du: zurbila, irribera, adeitsua. Logelatik aberearen pulunpak entzuten dira oraindik.

Saioak beharrezkoak dituen puskak baizik ez ditu atera maletatik. Aitona bertan aurkitu zuten bakailaoa bezala gogorturik. Amak eta berak aurkitu zuten. Ogi kozkor bat zuen esku artean eta ahoa zabalik.

Ez da bere arrastorik gelditzen logelan.

Amak aitonaren ondoan egiten zuen lo, oxigenorik gabe gelditzen zenean ito ez zedin. Itota hil ez dadin esaten zuen beti amak, etxe hartan heriotzaz hitz egiteko zeukaten soltura paregabearekin. Orain plastikoan bilduta dago ohe hori. Saioak ez du inoiz jakin zenbat denboraz egon zen begira, baina greba zela-eta ikastolara joan gabe gelditu zen egun batean, ama katuak bezala hurbildu zen gela hartara,

orain bezala, eta zaharrari sudurra estaltzen aurkitu zuen Saioa. Utziozu esan zion, larritasunik azaldu gabe. Utziozu, ahotsa jaso gabe. Ez zuten afera sekula berriro aipatu. Handik urtebetera edo hil zen zaharra, eta ama-alabek maindire bat tolestean den zeremonia faltaz preparatu zuten hobirako.

Elkarri eskua emanda egon ziren tanatorioan, eskuak lotuta, elkarri kemena eman bezala bizitza berri bati ekin behar dioten ezkonberrien antzera.

– Erdiarekin ere nahikoa genuen –xuxurlatu zion amak alabari irriz.

Hankak falta ez zituen gizon baten tamainakoa zen kutxa.

Saioak ezin du lorik egin. Mesanotxean jaunartzeko argazkia jarri du norbaitek: txirikorda bik zedarritzen diote aurpegia eta lore zuriak ditu buru gainean. Kabitzen ez zitzaion eraztun baten erruz hanpaturik ikusten zaio hatza. Egun hartan amak organo bat oparitu zion, eta Saioak agindu zion beretzako abesti bat jotzen ikasiko zuela. Bésame mucho izan zen, apaizak erakutsi zion, katixima eta gero. Gizonak aurrean ez zeudenean jotzen zuen Saioak, ama dantzatzen ikusteko. Gizonen aurrean zoriontsu agertzeko eskubidea izango ez balute bezala. Ondoko gelatik osabaren txiza txorrota plastikozko pixontziaren kontra entzuten da, jarraian karkaxa bat eta goizaldeko oilarraren kantuekin elkartu den zurrunga.

Bazkalorduan jaiki da Saioa, amak kaska egin duenean.

– Joan al dira gaztainetara?

– Bai, goizean goiz. Iristear egongo dira –poliziaren zain egongo balitz bezain erne belarria–. Hor dira, aditzen?

Saioak esne botila hartu du hozkailutik. Sojarenera ohitua, harridura eragin dio benetako behi esnea zintzurretik behera sentitzeak.

– Azkenean jantzi dituzu oparitu nizkizun belarritakoak.

– Kosta zait, baina orain ez ditut kentzen.

– Aitak zeozer esan al zizun?

Amak belarritakoak laztandu ditu.

– Kaldererotara ote nindoan.

– Ez al zizuten alergia ematen?

Indian egindako belarritakoak dira, zilarrezkoak. Ordura arte belarritako pare bakarra zuen amak, urrezkoa. Oparia egin zion garaian, Saioak amaren mundu murriz eta kamutsari leihoak zabaldu nahi zizkion.

– Zer moduz zaude?

– A ze galdera, neska. Nola nahi duzu ba egotea?

Senarra eta anaia inguruan zebiltzanean, amari galderak erantzun gabe erantzuteko trebetasuna azaleratzen zitzaion.

Osabak errafiazko zaku bat gaztaina ekarri du.

– Bost bat kilo.

Amak eskukada bat hartu du itxura begiratzeko, triku momifikatuak dirudite. Saioari goroldio usaina etorri zaio, orain bai, etxean da.

Gizonek lepoaren inguruan lotuta dute aho-zapia. Bazkaltzen duten bitartean ez dute apenas hitzik egiten, elikagaietan eta horiek sabeleratzeko egin beharreko mugimenduetan soilik jarria balituzte bezala gogoa eta indarra.

– Elurra datorrela esan dute irratian –esan du Saioak.

– Bazkalostean egur egin behar dinagu –esan du aitak. Leihotik begira dago. Ez ditu inoiz bereizi aginduak eta laguntza eskeak.

– Elur erauntsia –gaineratu du osabak.

– Ikusi al duzu Jauregi Zaharrarekin egin dutena? Zuri gustatuko zaizu –ama iseka airez ari zaio Saioari. Aita-osabak agertu bezain pronto haien arauetara makurtzen dira ama-alabak oharkabeen.

– Atzo erakutsi zidan aitak. Nahiago nuen lehen bezala, egia esateko.

– Babes ofizialeko etxeak egin behar ditizten. Zarauztarrak etorriko ditun bizitzera eta herria modernizatu beharra zagon.

Osabak ogiaren koxkorraz fideo eta oilar soberakinak ahoratu eta amari eman dio platera. Honek labekoa zerbitzatu du, senarrari, anaiari, alabari, eta azkenik bere buruari. Akuri erre bana.

– Ez al duzu izena eman behar? –galdetu dio amak.

Saioak bakarka hitz egiteko gaia iritzi dio, baina hala ere erantzun du:

– Denda biologiko baten arduraduna naiz Londonen, ama, oraingoz han gelditzeko asmoa daukat. Gainera, etxea musutruk daukat eta diru dexente ari naiz aurrezten –saihets ttipietan hondoratu ditu sardexka eta labana.

– Hori ongi dago.

– Dirua ez zagon inoiz soberan.

– Ingelesa hobeto ikasi nahi dut. Erdara baino hobeto hitz egiten dut kasik!

– Erdaraz primeran egiten dun ba hik! –esan du aitak amari begira, eta platerean pilatutako akuria hezurtxoak mahaiaren erdian utzi ditu, pila handiago batean.

Osabaren begiek mahaiaren bestaldetik traba egin diotenean, hozkailutik flan pakete bat atera eta mahaiaren ipini du Saioak. Aitak, osabak eta amak platerari

buelta eman diote eta gainean isuri dute flana. Zoparako erabilitako koilararekin jan dute.

– Zure aita datorren urtean da erretiratzekoa. Londonera joango garela agindu dit.

Aitak ez du imintziorik txikiena ere egin, baina Saioak badaki lotsaturik dagoela.

– Bai ala? –zirikatu du.

– Joan beharko –eta gerrikoa koska bat nasaituta, ogi papurrak galtzetatik astindu eta siesta egitera igo da. Saioari zahartu egin dela iruditu zaio.

– Eta zu, osaba?

– Ni ez naun katxarro horietako batean sekula santan igoko –eta sagar bat zuritu du, sagar asko zuritu dituenaren iaiotasunez, eta labanarekin lagunduta isiltasun erabatekoan jan eta gero, bera ere siesta egitera joan da.

Saioa eta ama harrikoa egiten gelditu dira. Edozein etxetan bizi izan dela ere, Saioa beti egon izan da prest harrikoa egiteko, aitzakia eta xextra guztietatik urrun. Ez du inoiz konpartitu jendearen nagikeria ontziak garbitzeko, beretzat harrikoa beti izan da une intimo eta gozoa, etxean amak eta berak egin dutelako beti agian.

– Nahi baduzu goazen zure gelara eta reflexologia pixka bat egingo dizut. Ea belarri horiek sendatzen ditugun.

Ohean etzanda Saioa, amak galtzerdiak erantzi dizkio eta oinak bere izter gainean ipini ditu. Saioak amantalaren hezea nabari dezake orkatiletan. Amaren eskuak mamitsuak dira eta okinak oreka nola maneiatzen ditu Saioaren oinak.

– Zer moduz bizi zara?

Behatz txikerrak indarrez estutu dizkio:

– Hemen daude belarriko min horiek, horregatik egiten dizu min estutzen zarenean.

– Eta zer moduz zaude ordua

– Zenbatetan galdetu behar duzu! Ondo, esan dizut.

– Badakit zer esan duzun.

Isilik gelditu dira eta Saioak tristura gozo bat nabaritu dio aurpegian.

– Opari bat ekarri dizut.

Maletatik koloretako paperetan bildutako kutxa atera du. Amak belarri parean jarri eta astindu egin du.

– Zintzarri hotsa dauka!

Saioak barre egin du, ama ume bilakatuta ikusteak zirrara eragiten dio.

Papera kontu handiz kendu eta ohe gainean utzi du, tolestuta. Kutxa zabaldu eta edukia esku ahurrean erortzen utzi du: soka batez lotutako golf tamainako bola bi.

– Txinatar bolak deitzen dira –erantzun dio Saioak amaren galderak egin gabe galderak egiteko moduari.

Saioak bakarrik utzi du ama. Korridoretik aita-osaben zurrungak heltzen dira. Sukaldetik Juan Carlos Irizarren kantu bat, jendeak nahi duen abestia eskatzen duen saio horietako bat. Gaztaina eskukada bat jarri du egosten, anisarekin.

Bitartean, aizkora txiki bat hartuta, egurra egin du gauerako. Izerdia botatzeak on egiten dio.

Kapitalismoa

Telmoren ama hil zenean, Telmo, urtebete lehenago arrebaren ezkontzara eramandako trajearekin azaldu zen. Eta anaia eliz atariko harmailetan gora ikusi ahala haserretuz joan zen Alazne:

- Gorbata ere ez duzu aldatu...
- Dibortziatu egin zarete, zer axola dio.
- Gorbata aldatu izan bazenu sikiera...
- Zapatak ez dira ezkontzakoak, ikusi...

Alaznek lurrera begiratu zuen: egur itxurako zapata marroiak, lokarri finekoak. Arrazoi zuen, ez zion axolarik. Eta senar-emazte zaharren antzera, besotik heldu zion elizpea zeharkatzeko.

Alaznek, kaxmirrezko gaban beltza zeraman soinean, zapata baxu distiratsuak, egun hartan bertan amaren logelatik hartutako urre zurizko lepoko bat. Josetxo, anaia gazteena, eta aita traje urdin ilun berri banarekin heldu ziren, ardo usainarekin biak.

Eliza barruan, aitaren eta Telmoren eskuei heldu zien Alaznek, baina Telmori intsentsuak azkura eman zion sudurrean eta elizatik irten behar izan zuen doministikuka. Zaharrak, Alaznek eta Josetxok kanpotik zetozen Telmoren usinak entzuten zituzten apaizaren barealdietan, negarrik egin gabe.

Gero, zaharra hil zen, Roman. Eliza jendez bete zen, aberatsekiko atxikimendua eta mira erakustea maite baitu herriak.

Elizkizuna hasi aurretik, Telmok hilkutxa biltzen zuen oihala ukitu zuen, amaren hilkutxa aukeratu zutenean aita egindako gauza bera eginez. Leuna zen, biguna zen, baina bazuen harro puntu bat. Aita eroso pasako zuen gaua bertan. Zaharra maniatikoa zen oihal kontuekin: ez zuen inoiz paperezko eskuzapiak jartzen zituzten jatetxeetan jaten, kleenexik erabili gabe joan zitzaion bizia, eta batista ingelesezko mukizapiak Donostiako denda batean erosi behar zizkioten (ama hil ostean, Alazne arduratu zen zeregin horretaz). Haute couture jostun baten antzera mintzatu ohi zen ehunen jauskera edo duintasunaz, eta alabak, haren laguntzaz aukeratu zuen ezkon soinekoa.

Alaznek mukizapi bat luzatu zion Telmori aulkian eseri aurretik:

- Atxiska hasiz gero...

Senar ohiaren inzialak zituen brodaturik, hari grisez.

- Zuk brodatu zenizkion? –galdetu zion Telmok belarrira.

Telmok sudur parean jarri zuen mukizapia, badaezpada.

- Edan egin duzu –esan zion Alaznek Josetxori ezpainak mugitu gabe.
- Ardo bat, etorri aurretik.
- Bat?

Josetxok joateko imintzioa egin zuen, eta arreba isildu egin zen.

Bataiatu zutenez geroztik, Telmo txikia eliza batera sartzen zen bigarren aldia zen. Aitaren eta izebaren artean zegoen, eta tarteka atzerantz begiratzen zuen,

amaren bila. Erdialdeko ilara batean zegoen Maite, apaizaren berbei adi, herri guztietan dago hildakoentzat nahikoa lur, kobazulo hartarako freskoegi jantzita. Behin baino ez ziren gurutzatu ama eta semearen begiradak, eta mutikoari, nekeagatik eta asperduragatik nork daki, aitonaren sudurra hilkutxatik irteten ikusi izana iruditu zitzaion marrazo baten hegala nola.

Amaren hiletatik gizenduta zeuden hiru anai-arrebak.

Lasai zeuden, autobusaren zain baleude bezala egon ziren ofizioak iraun zuen bitartean.

Kasik amaieran, Telmo elizatik irten zen. Izebaren eskua askatu eta atzetik joan zitzaion mutikoa. Aita atarian zegoen eserita, txakur bati laztan egiten.

Zaharra Telmoren aurrean hil zen, ospitalean eta egun argiz. Arnas ziztuka hasi zenean ere Telmo ez zen zaharra ukitzera ausartu, 45 urte elkar ukitu gabe bizi ondoren bihotz hauskor hura fereka batekin suntsituko zuen beldurrez. Azken hasperenarekin batera txirrina jo zion erizainari.

– Amaitu da –esan zion erizainak, eta andre aldakazabal haren esku epela senti dezake oraindik lepoaren ondoan–. Sufritu gabe joan da.

Erizain hark ez zekien zein neurritaraino ari zen egia esaten. Ondoren, begiak itxi zizkion, hatz mamiak betazaletan maitasunez pausatuz, eta ohea desegiten lagunduko ote zion, Telmok ez zuen besterik esaten asmatu.

– Ez da beharrezkoa.

Aita ohe eta guzti eramán zuten. Eguzkiak bete-betean jotzen zuen eta hauts malutak ikus zitezkeen airean. Telmo korridorean gelditu zen, anai-arrebak etorri zain. Esku batean, arropaz eta gailleta zorroz beteriko maletatxoa zeukan; bestean, aitaren hortzeria zuen edalontzia. Telmok ez zuen jakin non pausatu, arrebak eskutik erauzi eta zapitxo batean bildu arte:

– Batzuetan nahita egiten duzula dirudi, gizona... Herentzian, enpresaren akzioen herena eta diru mordoxka bat jaso zuen seme-alabetako bakoitzak. Notarioak plastikozko boligrafo batekin sinarazi zien paper sorta ugari, aita labetik irten berria zela:

– Zaharrenetik gazteenera egingo dugu: Telmo, Alazne, Jose Antonio... Badakit une latzak direla hauek, eta horregatik, lehenbailehen amaitzea hobe.

Telmok zuen sinadurarik barrokoena. Alazne eta Josetxorenak kasualagoak ziren, lurrunkorragoak.

Espero zitezkeen bezala, ez zen haserrerik egon. Guztiek berdin jaso zuten, nahiz eta Josetxok ez zuen enpresarekin inoiz ezer jakin nahi izan. Alaznek eta Telmok nahiago zuten Joxetxo kanpoan, nolanahi ere.

Notarioak bostekoa eman zien:

– Gizon zintzoa izan da zuen aita. Gaur egun Enpresaritzak ikasten dutenen artean ez da halakorik aurkitzen. Marketing gutxiago eta Etika gehiago irakatsi beharko liekete gazteei unibertsitateetan. Eta Roman irakasle. Gaur egun, azkar aberastea, besterik ez dute buruan...

Telmok, Alaznek eta Josetxok, buruaz baietz egin zuten, notarioa zehazki zeri buruz ari zen oso ongi jakin gabe. Tarteka elkarrekin arrantza eginak zirela

notarioa eta aita, hori bazekiten. Bata bestearengandik bost metrora egoten ziren, kirol jantziekin, elkarri begiratu eta hitzik egin gabe, soilik txirrikaren karranka, eta, tarteka, arrain baten azken buztankadak baldearen kontra.

Inoiz ez zuten aitari buruzko gauza askorik jakin. Zekiten apurra, amak esana zen. Amak, gudaroste baten balentriei buruz ariko balitz bezala kontaktzen zituen aitaren sendiari buruzkoak, aberatsei zor zaien urruntasunaz. Kontakizunari larritasuna emateko, aulki batean eseri eta ahotsa apaltzen zuen. Telmok eta Alaznek batez ere ama entzutea maite zuten. Nonbaiteko, erresuma baten parte sentitzen ziren. Entzutean, haien berraitona, eraikitzailea zela, adibidez, etxeek eraikitzailearen izena zeramaten garaian. Roman hamahiru urterekin hasi zen aitarekin lanean, hondar eta igeltsu zakuak batetik bestera eramaten; hamasei urterekin, kamioian joaten zen, gidariaren laguntzaile, harrobian hondar tonak erostera. Hemezortzirekin, berak bakarrik, bere lehen tratua itxi zuen, baserria handitu nahi zuen bezero zahar batekin. Aitak behetik gora erakutsi nahi izan zion ofizioa, bestela jendeak ez omen zion barkatuko eta.

Urteak behar izan zituen Romanek ulertzeko. Herrikoek maita zezaten deus egin ez zuen arren, maite zutela ohartu zenean. Huraxe izan zen aitaren ikasbidea: apaltasuna eta irmotasuna.

Ordurako, aitak utzitako negozioa enpresa bilakatua zuen Romanek.

Herentziaren zati bat beltzean jaso zuten Romanen seme-alabek, eta diru horrekin, Telmok auto berria erosi zuen: Volvo familiar beltz bat. Auto saltzailearekin batera itxuratu zituen Volvo berriaren kanpoa eta barrua, eta han, gizon harekin bakarrik, haren desodorante usainak bulegoa betetzen zuela, larruaren kolorea eta airbag kopurua zehazten ari zenean, Maiteren falta sumatu zuen.

Kanbioen eskutokia metalezkoa nahi zuen, horretan ez zegoen dudarik:

– Hori ez dizute fabrikari egingo, hori aparte eskatu beharra dago –esan zion saltzaileak.

– Dei bat egingo dut.

Maitek larru argiaren ezegokitasunaz ohartarazi zuen Telmo:

– Umea txikiegia da oraindik; edo ez diozu zure autoan txokolatea jaten utzi behar?

Arrazoi zuen, Maitek beti zuen arrazoia. Gainera, Telmo txikiak asteburuak probesten zituen nahi zuena eta nahi zuen orduan jateko, amaren arauetatik libre.

– Eskerrik asko. Ongi zaude? Ez dizut galdetu ere egin.

– Bai, hilekoa erretiratu zait, eta lehen beroaldiak pairatzen nabil.

– Ez nekien. Mingarria da?

– Ez, Telmo. Zahartzen ari garela, besterik ez. Amari ere goiz xamar erretiratu zitzaion. Tipula baten modura hasi naiz janzen, kalera irtetez zer erantzizateko.

– Umeak badaki?

– Jakin beharko luke?

Hilabete pare baten buruan, auto saltzaileak autoa iritsi zela esateko deitu zionean, Telmok ez zuen jakin norekin joan kontzesionariora. Aita bizirik balego, berak eramango zuen, elkarrekin sartuko liriateke autora, elkarrekin hordituko larruaren berri usainarekin. Baina aita bizirik balego, berak ez leukake auto berririk. Beraz, aukera horrek ez zuen balio. Telmo eskolan zen eta Maiteri deitzea ez zitzaion txukuna begitandu. Bitan pentsatu zuen, bigarrengoan txukunago irudituko zitzaiolakoan, baina ez. Gainera, ostiral arratsaldea zen, eta beste edonori deitzea lekuz kanpo zegokeen. Bazituen arazoak konpontzeko lagunak, korrika egitera joateko bizilagunak eta tartean behin mozkortzeko nekalogunak. Baina, kontzesionariora auto berria jasotzera lagunduko zion inor ez zuen ezagutzen.

Bakarrik joan zen, taxian. Auto saltzaileak harrera egin zion, bostekoa luzatuz.

– Goizean ailegatu da. Eguraldi bikaina duzu barru-barruraino sakatzeko.

Zeruan, eguzki zuri eta hotza. Lainoak zirpilduz zihoazen aurrera egin ahala.

Telmok autoaren bila jaitsi zituen begiak, saltzailea ebitatuz, baina ez zen ageri.

Saltzaileak, dramarako joera nabarmenarekin, sorbaldatik heldu eta dendaren atzealdera eraman zuen. Han, belar izpi bakan batzuk baino ez zituen orube baten erdian, bere auto bakarti, distirant, beldurgarria zegoen, uzkurtuta, zain.

Gizonak hatza gaintetik pasa eta marra distiratsu bat utzi zuen kapotaren gainean:

– Polenak estali aurretik eramatea komeni –esan zion saltzaileak.

Telmok doministiku bat ito zuen.

– Depositoa bete dizut, etxearen kontura.

Telmok giltza ukabildu zuenean, billetez betetako gutunazala luzatu zion saltzaileari. Saltzaileak, hatzen eta ezpainen abiadura biziak modu harrigarrian koordinatuz zenbatu zituen. Telmok ez zuen zirkinik egin. Eta bezeroa urdangarekin bakarka uzten duen proxenetaren antzera begiratu zion saltzaileak: – Zaindu ezazu. Eta ongi pasa.

Bakarrik gelditu zenean, Telmok aurrez aurre begiratu zion autoari: muturra, txapala; ahoa, luzea eta zabala, serioa eta arranditsua; argiak, zabalik munduari begira. Pilotuek itxura oldarkorra ematen zioten, apeta hutsagatik eraso egin dezakeen animalia batena. Gerria findu izanak silueta edertzen zion, baina handitasunari kalterik eragin gabe. Ipurtalde gihartsua lerdentasun agian gehiegizkoaren kontrapuntua zen, ez zekien, arreta handiagoaz aztertu beharko zuen.

Piztu aurretik, beste itzuli bat eman zuen autoaren inguruan. Perfektua zen.

Urte batzuk lehenago, autoa bereganatzeko unean bakarrik egoteak zapuztu egingo zukeen. Baina, Maite eta biak bereiztu zirenetik, gauzei bere begiekin soilik begiratzen trebatu zen. Bereiztu zenetik intimitatea berreskuratu zuen, Maite eta Telmo txikiari hilabeteko kuota ordaintzearen truke. Gainera, aitaren heriotzarekin, xamurragoa zitzaion intimitatearen erosketa hura. Merkeagoa, bederen. Eta merkeago erosteak biderkatu egiten du erositakoaren balioa, edo hori sinetsita bizi zen Telmo.

Hatz mamiaz giltzaren botoia inguratu zuen, sakatuz eta burdina tentetuz, burdina hotz eta gogorra. Telmok ez zuen inoiz ezer inon sartzeko premia larriagorik sentitu. Hunkiturik zegoen.

Atea zabaldu aurretik, zapatetako hautsa kendu zuen. Han barruan, erabatekoa zen isiltasuna. Eserlekuetako larrua epela zen, kasik gizakume batena bezain. Zimurrek eta poroek gizatasuna areagotzen zioten. Martxen eskutokia leuna eta sendoa zen. Aginte-mahaiaren gainean jarri zuen masaila. Lehen ikara hura sentitu nahi zuen aurpegian, arnasa, autoaren desloratzea motorra piztean. Giltza barneratu eta motor hotsarekin batera, animalia inarrosi egin zen. Telmok laztan egin zion.

Lehen autoa izan zuenetik ez zuen larridura hura bizi. Bigarrena sartu eta orube hartatik irten zen: mantso eta astun, pozik baina zuhur. Errepidera abiatu aurretik, bluetooth-a erabiltzen ahalegindu zen, baina ez zuen lortu. Maiteri deitu nahi zion auto berriarekin semea nora eraman zezakeen galdetzeko. Ordu pare bat gelditzen zitzaion oraindik, Jaizkibel mendia abiadura ezberdinetan igo eta jaisteko urrezko bi ordu.

Telmok eta bere familiak bedeinkapen gisa hartzen zuten lantokia eta etxea elkarren ondoan izatea. Batez ere Alaznek. Telmoren arrebak atsekabea adierazten zuen hurbileko norbaitek lanera joateko autoa hartu behar zuela jakiten zuenean.

– Zenbat kilometro egiten dituzu joateko? –galdetzen zien beti.

– Berrogei bat.

– Berrogei bider bi, laurogei. Egunero bizitza arriskuan jarri lanera joateko? Eta gasolinak duen prezioarekin!

Autoak asteburuetarako ziren, oporretarako. Jaizkibel igotzen hasterako lainoak saretu ziren. Telmok azeleragailua sakatu zuen, bihurguneetan apenas mugituz bolantea; jaitsieretan, lurrari fermuki heltzen zitzaion autoa, igoeretan berriro aireratzeko. Ez zirudien autoa bere menpe zegoen makina zela, baizik eta jabearen instintuari jarraitzen zion animalia. Beldurra eta miresmena sortzen zizkion izaki libre bat.

Itsas-labar baten gainaldean gelditu zen, ehiztariantzako etxola huts baten ondoan. Errepidean ez zebilen inor, hegaztien karrankak entzuten ziren, olatuak hausten. Azken batean, autoa aitari erakutsi nahi zion, han zabaldu zituzten-eta haren errautsak hilabete batzuk lehenago. Zerura begiratu zuen, baina zurtasuna mingarria zitzaion. Makurtu, eta belar bustia laztandu zuen:

– Ederra da. Eta fina.

Horrelakoa zen aitarekiko harremana. Inoiz ez galderarik, inoiz ez bostekorik, burura eramandako ekintzak soilik. Azken bospasei urteetan, Urte Berriarekin batera, enpresak beltzean irabazitako dirua banatzen zuen Romanek hiru seme-alaben artean: bizpahiru milioi bakoitzarentzat. Josetxo ez zen ezkondu, eta Alazne eta Telmoren senar-emazte eta kumeek haien gurasoen etxeetan bazkaltzen zuten urtarrilaren lehenean, Romanek hala iradokita:

– Gero zuek ikusi zer egin sobreekin; nahi izanez gero zuen amaginarrebei edo Medicus Mundiri eman, baina nik behintzat ez dut lekukorik nahi.

Turroiarekin batera ekarri ohi zituen gutunazalak amak, aita siestara joandakoan. Orduan ere ezin eskerrak eman. Une hartara arte, gurasoen logelan egoten ziren sobreak, komoda gaineko pitxar baten inguruan jarrita: hiru gutunazal maiztu, paperez beteak, hamaika bider birziklatutako goma batez estutuak. Turroiaren azpilean ekartzen zituen amak, eta han egoten ziren, azukre-almendra, mahaspasa, turroi papur, kikara zikin eta mazapanekin berdinduta, mahaiaren erdigunean, desafio eginez bezala, “gai al zarete bazkalondoari eusteko milioi hauek mahai gainean egonda?”, ama aharrausika hasi eta bera ere lotara joan arte.

Bereiztu ziren urtean, Telmo txikiak aitarekin pasa nahi izan zuen Urte Berria. Bost urte zituen eta aitona-amonen etxe misterioz beteriko hura berriro ez zapaltzeko beldur aitorrezina. Telmok telefonoz esan zion zaharrari semearekin joango zela. Baimena eskatzeko modu bat zen, lekuko txiki bat eramateko baimena. Zaharrari egoki iruditu zitzaion, biloba zaharrena zen, premuaren kimu guria, eta konplexurik gabe adierazten zuen zaharrak Telmo txikiarekiko zaletasuna haren lehengusuak alboan izanda ere. Egun hartan, bazkal aurretik, Romanek despentsara eraman zuen Telmo txikia:

– Ba al dakizu ehun arte zenbatzen?

– Bai –erantzun zion umeak.

Irrati zahar baten ipurditik, klip batekin lotutako billete sorta atera zuen. Umearen pareraino jaitsi zen, hatz mamiak listuz busti eta errezo baten kadentziarekin, ehun paper bereiztu zituen.

– Orain zuk.

Mutikoak aldartea aldatu gabe zenbatu zituen.

– Behar dituzunerako. Ez inori erakutsi.

Hiru anai-arrebak eta gurasoak elkartzen ziren urteko egun bakarra izaten zen hura. Zaharrak, lehen platera zerbitzatu arte, El Diario Vasco mahai gainean irakurtzen zuen. Baina egun horretan, Telmo txikiari hontzaren ulua egiten erakutsi zion, umearen aitak eta osaba-izebek eski jauziak telebistan ikusi bitartean. Gero, aitonak ez zion bilobari hitzik zuzendu, eta Telmo txikiak, tarteka, patrikan sartu behar zuen eskua hangoa egiazkoa zela ziurtatzeko.

Gabonetan, Alazne arduratzen zen bazkaria prestatu, mahaia jarri eta zerbitzatzeaz. Enkajezko zamau zuria, alpakazko argimutila eta mahai-tresnak, hautsontzi bat aitaren aldean bazkalosteko purutxoarentzat, izotzontzia Josetxo eta Telmoren erdian txakolin botila batekin. Beti lehorregi irteten zen txerrikumea izaten zuten bigarren platererako, senide bati erosia. Ardoa, nahi beste, hogeit hamar urte baino gehiago ziren hornitzaileek Gabonen bueltan ardo eta xanpain kutxak bidaltzen zituztela Roman Lazcano e hijos enpresara. Eta itsaskiak gutxi, azido urikoa igotzen zielako zaharrei. Baina ez zen zikoizkeria. Bizitzeko modu bat zen. Dirua irabazi eta pilatzeko zaletasuna. Kirol bat bezala, karta joko bat bezala; eta irabazteko inertzia belaunaldiz belaunaldi igaro zen, futbol talde

edo alderdi batekiko atxikimendua kutsatzen den xalotasunaz, apenas gaiztakeriarik gabe.

Ama telebista aurrean lo utzita, hiru seme-alabek elkarrekin hartzen zuten igogailua. Behera iritsi aurretik izaten zuten gutunazalak zekarrenaren berri. Alazne izaten zen zenbatzen azkarrena.

Zaharraren errautsak haizatu zituzten egunean, antzerako koloreak zituen Jaizkibekek: eguzkia zuri, itsasoa beltz, belarra urdin. Ordutik ez zen itzuli. Hotza sentitu zuen oin zoletan Telmok eta autora bueltatu zen. Labarraren ertzean aparkatuta, zerua ebakiz, beldurgarria ikusten zen.

Aurreko autoa, Opel Vectra, Maiteri eskaini zion, zalapartarik gabe. Volvoa hartu bezain pronto emango ziola, nahi izatera. Ongi konpontzen ziren. Maite, ongi egindako ohea bezain erakargarria zen: garbikari usainekoa, zehaztasunez lisatuta, freskoa. Zortzi urtetan, behin bakarrik urratu zuen Telmok seigarren manamendua, semea jaio eta aste gutxira, gainera. Bere lanbidean putanerrak ugariak ziren, baina Telmok ez zituen putak gogoko, higieagatik, esaten zien kolegei. Bilboko lehengusu txiki baten ezkontza izan zen. Maitek nahiago izan zuen ez joan, umeari bularra ematen segitzeko. Komunean izan zen, trajez jantzitako bere adin beretsuko gizon batekin. Gizonak lepotik heldu zion, lapur batek bezala, eta bere lurrin bera erabiltzen zuela ohartu zen Telmo. Gizonak, belarria horzkatu eta gerrikoa askatu zion. Telmok une oro eman zion bizkarra. Bost minutuko kontua izan zen, burtsako agente biren arteko borroka zirudien. Bereiztu zirenean, sastakaia ateratzen ziotela sentitu zuen, min gozo bat, zauria agerian. Festara bueltan, hitz pare bat trukatu zituzten, euren biografiei buruzkoak. Gizonak bisita txartela eman zion, finka administratzailea zen. Azken gin tonica edan eta autora abiatu zen. Eseri zenean, postrean jandako txokolate beroz beteriko souflearen antzera sentitu zen.

Telmok, inorekin larrua jotzea baino, maiteago zuen masturbatzea. Beti jakin zuen, eta patua onartzen den naturaltasunez zeukan barneratua. Hotel batera iritsi bezain laster, komuneko papera mesanotxe gainean ipini eta eragin egiten zion. Bere onera bueltatzen zenean, Maiteri deitzen zion ongi zegoela esateko eta bideko gorabeheren eta gelako dekorazioaren berri emateko.

Beragatik izan balitz, ez zen bereiztuko. Baina Maite tematu egin zen, gauzak ez zirela horrela egiten.

– Hanka politik zituen –esan zion aitak dibortzioa sinatzear zirela—. Eta hankak dira, andre batengan, gutxien zahartzen den gorputz atala. Bazenekien?

Hanka politik zituen, belaun hezurtsuak eta izter joriak. Sinatu eta gero jatetxe batean bazkaldu zuten, bazirudien ez zela ezer gertatu. Agurtzean, eguneroko musua eman zioten elkarri, Telmoren eskola atarian.

Behin eta berriz ukabildu eta askatu zuen martxen eskutokia Telmok, eta inoiz ukitutako formarik bikainena iruditu zitzaion. Duina, boteretsua, serioa, leiala zuen autoa. Zaratarik atera gabe utzi zuen labarra atzean. Belarrak iluntzen hasiak ziren, zerua lurrera biltzen.

– Auto honetan nekez aurkituko duzu plastiko zati bat –esan zion saltzaileak salmenta egunean–. Eta hori beti da interesgarria, auto arruntek, lasto-fardelek bezala hartzen dute-eta su.

Babesturik sentitzen zen Telmo han barruan, bonbardatzen ari diren hiriko eliza barruan bezala. Eraginkorrak izan ziren ingeniarien ahaleginak autoa munduko zaratatik isolatzeko. Noizbait sentitu izandako mistikotasun hura berreskuratzen laguntzen zion auto barru hark.

Itzuli zitekeen Maiterekin, baina ez zuen berarekin bueltatzeko motibo argirik aurkitzen. Emaztea, semearen ikastolako zuzendariarekin endredatu zen, umeak lau urte zituenean. Telmok bazekien ez zuela luze iraungo, baina Maiteren presak, itxaropenak, zuzentasunak, dibortzioa eskatzera bultzatu zuten. Telmok, trabarik jarri gabe onartu zuen. Azken batean, alde on asko zituen. Bost urte pasata, bueltatu zitezkeen, baina Maitek ere ez zuen horretarako motibo sendorik aurkitzen. Nork bere etxea, autoa, soldata zuen, eta gainera, bederatziz urteko seme bat konpartitzen zuten. Egitasmo gutxi gelditzen zitzaizkien elkarrekin burutzeko.

Itzuleran, 190 kilometro orduko abiadura hartu zuen. Telmori ez zitzaion abiadura bereziki gustatzen, baina autoa trantze hartan ipintzeko gogoia zuen. Dardar sotil bat eta autoa bizirik zegoela sentitu, besterik ez.

Inoiz Telmorena ere izandako Maiteren etxe parera iritsi zenean, eta leku hoberik ezean, espaloi gainean utzi zuen autoa. Klaxona jotzea nabarmenkeria iruditu zitzaion (distiratsuegi, berriegi zegoen oraindik autoa), eta txirrina sakatu zuen. Minutu baten bueltan ama-semeak atarian zeuden. Ama, orraztu berritan, usain oneko, ezpainak ikasle batenak bezain osasungarri.

– Afaltzeko gelditu zara, ala?

– Bai. Nabaritzen al da? –galdetu zion Maitek, portaleko kristalean bere isla epaituz.

– Ez dakit. Agian. Pixka bat.

Semeak motxila handi eta hanpatua zeraman bizkarrean. Telmo, umea iragan igandetik ikusi gabe, asaldatu egin zen. Munduan gehien maitatu behar ditugun pertsonak, maitatzen zailen direnen antza dute, pentsatu zuen. Telmo txikiak aitonaren aurpegiera baitzuen: kokots eta sudur kakotzen hasiak, kopeta estua eta ilaje ilun oparoa, Maiteren begi borobil eta ezpain mardulak. Baina Maite ez zegoen maitatzen zailenen artean, bera ez.

Emakumeak musu eman zion mutikoari buruan. Aitarengana joateko seinalea zen.

– Parkean biltzen garen amak gelditu gara afaltzeko. Ez dugu zerikusi handirik gure artean, baina...

– Batzuetan ez da gehiagorik behar.

– Normalean ez da gehiagorik behar, egia da. Maitek irribarre egin zuen, Telmok beretzako nahiko lukeen buruaskitasuna iradokiz:

– Eta zuek nora joango zarete? –galdetu zuen emakumeak arinago.

– Begiratu hor parean.

Telmo txikiak korrika igaro zuen zebrabidea. Maite iritsi zen ondoren, eta Telmo apur bat atzerago gelditu zen, emazte ohiaren eta semearen ospakizunekin xamurtuta.

– Honetan bilakatu da aita, Volvo V70 batean, zer iruditzen?

– Ez ezazula horrelakorik esan.

– Hala da, gauzak diren bezala esan behar dira.

– Azkenean larru iluna aukeratu duzu...

– Kasu egin nizun.

– Baina ez duzu haurarentzako eserlekua ezarri.

– Behingoagatik ez zaio ezer gertatuko, ez da hala Telmo?

Mutikoak, atzeko eserlekuko DVDa piztu eta marrazo zuriei buruzko dokumentala atera zuen motxilatik.

– Oso aita ederra duzu –esan zion Maitek, asebetterik. Telmo autoaren muturrari begira zegoen, sorgortuta.

– Bere irribarrea dauka, konturatu zara? Emakumeak lepoa okertu zuen 90 gradu, baiezkoa eginez, amakor.

– Aspalditik nuen begiz jota.

Maitek burua auto barruan sartu zuen:

– Berri usaina dauka. Maite dut.

– Tori, esandakoa –Telmok Opel Vectraren giltza ipini zion eskuan emazte ohiari, helize urrekara bat zuen zintzilik–. Aparkalekuko giltza izango duzu oraindik, ezta?

– Bai, hor nonbait izango dut.

– Nahi duzunean hartu. Azaroan iraungitzen da aseguru.

– Mila esker, Telmo. Benetan. Golf a ilobari salduko diot, 3.000 eurogatik. Sinbolikoa da, ulertu dezan zerbait edukitzeko borrokatu beharra dagoela. Eta dirua umearen kontuan sartuko dut, ongi iruditzen bazaizu.

– Zer? –galdetu zuen auto barrutik Telmo txikiak.

– Ezer ez, segi zure pelikularekin.

– Orduan, igande gauera arte?

Telmok musu bat eman zion belarri ondoan. Bere usaina oroitu nahi zuen.

– Ongi pasa afaritan.

Ateak itxi eta motorra piztu bezain pronto, Telmok adorea berreskuratu zuen. Babesturik sentitzen zen, bakean, arriskutik kanpo. Bolanteari helduta, autoaren dardaren oihartzuna sentitu zuen eskuetan. DVDtik ateratzen zen offeko ahotsak baizik ez zuen isiltasuna zapuzten.

– Ez al zara aspertzen beti pelikula bera ikusteaz? Umeak ez zion jaramonik egin.

– Udaletxeko lagun batek esan dit, datorren urtean agian marrazo zuri bat ekarriko dutela akuariumera.

Mutikoak aurreko bi eserlekuen artean ipini zuen burua:

– Arrain guztiak jango lituzke!

Ostiralero bezala, hiriburuko saltoki-gune batera joan ziren, astebururako janaria erostera. Telmok ernegua sentitu zuen aparkalekuan autoa bakarrik utzi behar izanateagatik, eta azkar egingo zutela gaztigatu zion mutikoari:

– Azkar egingo dugu, ezta, txiki?

Aita-semeak eskutik helduta, txikleak jaten eta poltsa banarekin irten ziren supermerkatutik, nekatu ixturarekin. Saltoki-gunearen kanpoaldean, Toys 'r' us-en parean, animalien plastikozko erreplikak saltzen zituen postu bat ipini berri zuten. Telmok histrionismoa erabili ohi zuen mutikoaren zirrara pizten ahalegintzeko:

– Begira hor!, begira!, hara!, begira, uau!, zenbat!, ufa!

Mutikoaren sudur parean, koloretako azpiletan sailkatuta, narrastiak, ugaztunak, hegaztiak eta arrainak. Aitak hogeituro eurokoa eman zion. Hura zen asteburuko gutuziak asetzeko kuota, kudeatzen ikasi behar zuen diru kopurua.

Telmo txikiak marrazo zuri bat hartu zuen esku batean. Hegatsaren azpian, salneurria: 9,95 euro. Izerditan zituen eskuak. Azpilean nahasten jarraitu ondoren, marrazo tigre bat hartu zuen beste eskuan, zuria baino txikiagoa: 6,95 euro. Bertigoa sentitu zuen, mutu utzi zuen zarrada bat.

Aita autoaren giltzarekin ari zen jolasean, aparkalekura begira, botoiaren sentiberatasuna aproban jartzen.

Mutikoak plastikozko begiei begiratu zien, zuriaren erreplika leialagoa zen tigrea baina, eta handiagoa ere bai; tigrea erositako ordea, hiru euro aurreztuko zituen.

– Zein hartuko dut, aita?

– Mugi zaitez, maitea, berandu da-eta –egin zion errieta aitak, sinesgarritasun eskasarekin.

Eskuak ez ezik, Telmo txikiak izerditan zuen lepoa, bizkarrezurra. Izerdi hotza, lehorra.

– Ez dakit zein aukeratu...

Begiak itxi zituen poliki, marrazo biak ukabilduta. Zabaldutik zituenerako, erabakia hartu zuen: marrazo zuria bere lekuan utzi eta hogeituro billetea luzatu zion saltzaileari. Kanbioak eta aparatudun irribarrea itzuli zizkion hark.

Autora bueltan, atek ixtearekin bat, isiltasun hermetikoak bildu zituen aita-semeak. Munduak pelikula mutu eta graziaz gabeko baten itxura zuen han barrutik.

– Pozik zaude? –galdetu zion aitak.

– Bai –erantzun zuen Telmo txikiak, urduri oraindik. Bera ere pozik zegoen. Eserlekuan hondoratu zenean, berri usainaren amaieran, kirats ustelkara bat sartu zitzaion biriketara ordea.

Bera ere noizbait ondasun bilakatuko zen, luxuzko orga edo malko itxurako igerilekua, nork jakin.

Erretrobisoretik begiratu zuen: marrazoa hegazkin bilakatuta, airea zeharkatuz ari zen umea.

Urtebetetze festa

Izadik kirolen bat egin behar lukeela esan zidan irakasleak kurtso amaierako bileran, “barruan duen indarra ezagutu”, “beste jende mota batekin egon”, “harreman berriak egin”, “autonomia”. Horrelakoak eta gehiago esan zituen irakasleak, urtero legez. Harritu plantak egin nituen, baina banekien. Bere gainean egoteko ohitura neukan, onena hori zela uste nuen, edo beharbada ez nekien, ez nengoen seguru. Hainbeste desio izan nuen umeaz ahalik eta gehien gozatzea. Aurretik ez nuen ez ezer ez inor luzaz zaindu, eta ematen zuena baino konplikatuagoa zen, maitatzea baino askoz zailagoa. Asteburuak, oporrak, gure egunak... unitate didaktikoen segida bat balitz bezala antolatzeraz ohituta nengoen, azken urtean ordea nekatuegi nengoen, eta, agian horregatik, gure arteko harremana okertzen hasi zen.

Uda hartan, piragua ikastaro batean apuntatu nuen bere borondatearen kontra. Klub atariraino laguntzen nuen eta bukatzean itzultzen nintzen bila. Bi ordu haietan egin nahi behar nituzkeen gauza guztietan pentsatzeak itolarria sor tzen zidan. Askatasuna beharrean, tristura eta ezinegona sentitzen nituen. Izadi han utzi, aparkatu eta Santiago auzoko kafetegi batera joaten hasi nintzen. Han, egunkaria irakurriko nuen aspaldiko partez, edo besterik gabe te bat hartuko nuen eguzkipean. Baina ezin izaten nion eutsi, eta ibaira itzultzen nintzen. Banku batean eserita egoten nintzen uretara begira, piraguetan zeuden hamarnaka haurren artean nirearen bila: beti zegoen taldetik aparte, salbuespenik gabe, nahiz eta ez nekien benetan hala zen edo nire irudipena zen.

Besteetan bidegorrira joan eta, gehiegi urrutiratzeko beldurrez, atzera-aurrera ibiltzen nintzen. Ordura arte ez nuen bazter hura ezagutzen. Ezkerrean etxe txurigorri txikiak, parean fabrikak eta eskuinean Irungo etxe orratzak. Baina ingurua bakean utzi eta errekarik bakarrik erreparatuz gero, leku basati bat da aurrean daukazuna, behin eta berriz joan eta behin eta berriz gauzak sentitzeko moduko leku bat. Nonbait entzuna nuen, antzina, mugimenduan zegoen urari begira jartzeko gomendatzen zirela triste zeuden emakumeei, mugimendu hark barruko sentipen txarrak askatuko zizkielakoan. Nolanahi den ere, espero gabeko ñabardurak aurkitu nizkion errekarik: padura usaina eta lupetzaren misterioa deskubritu nituen.

Azken egunean Izadik gutun-azal bat erakutsi zidan, bila joan nintzaionean.

– Claudiak bere urtebetetze festara gonbidatu nau. Bihar.

Izurde bat ageri zen gonbidapen txartelean; atzealdean eskuz egindako mapa bat, puntu gorri batekin, kalearen izena eta eguna, “ekarri bainujantzia”, espainolez idatzita.

– Nor da Claudia?

– Lagun bat.

Leioha jaitsi eta deiadar egin zuen:

– Claudia!

Bisera zeraman neskatila batek besoa altxatu zuen urrunean. Izadi baino altuagoa eta gizenagoa zen.

– Utzi dit! –oihu egin zuen Izadik.

Urtebetetzeari esker agian beste bizpahiru ordu marruska nitzakeen.

– Orban bat dauka aurpegian –esan zidan–, horregatik eraman behar du bisera belarridun hori.

– Ez nengoen ohartuta –eta neskatoari begiratu nion ongi erreparatzeko, baina ordurako joana zen. – Ez zarelako inoiz ni ikustera etorri.

Tirabira txiki bat izan genuen. Kontu handiz azaldu nion niretzako astia behar nuela eta berak ere ni gabe egoten ikasi behar zuela. Ez nion kontatu urrutitik beha egoten nintzela. Izadi isilik gelditu zen. Zegoen tokitik alde egiteko erabiltzen zuen. Isiltasunaren erresuma, esaten nion, noiz itzuli behar duzu isiltasunaren erresumatik?

– Nolakoa da, granatea? –galdetu nion gehiago jakiteko gogoz–. Granatea al da? Hitz egiten ari naiz. Nolakoa da, morexka?

Kasik gure etxe parean egon arte ez zidan erantzun.

– Marroia. Bizkarretik azal puska bat kendu zioten eta aurpegian jarri. Uste dut besteei nazka ematen diela, baina niri ez.

– Ongi –esan nion–. Hori oso ongi dago.

Atzerako ispilutik begiratu nion poza erakusteko, baina aurrera begira zegoen serio. Begi politak ditu. Jende askok esan izan dit. Hazia eman zuen tipoa ere polita ote zen galdetzen diot tarteka nire buruari. Jende ederrak horrelako gauzak egiten ote dituen, jende ederra baino gehiago jende berezia ez ote den horrelako gauzak egiten dituen. Berezia, onerako zein txarrerako. Izan al zaitezke berezia onerako zein txarrerako izan gabe?

Pentsakizun horietan hasten nintzenez urrunegi joaten nintzen, eta gero kostea egiten zitzaidan bueltatzea.

Izadik ez zion etxean egindako zerbait bakarrik oparitu nahi. Nire irizpideen kontra, Soy Luna-ren egunerokoa erosiko genion, elkarrekin bizkotxo bat prestatzearen truke.

– Ongi iruditzen al zaizu?

– Berdin zait –esan zidan Izadik.

Baina nik egin egin nahi nuen. Biok batera sortutako zerbait. Politak iruditzen zitzaidan horrelako aukerak aprobetxatzea. Izadik tratua onartu zuen. Aztoratuta zegoen. Besteen etxeak ikustea maite zuen gehien, eta Claudiarena nolakoa ote zen espekulatzen aritu zen:

– Aberatsak direla uste dut. Pizina dutela esan dit. Eta jolasteko gela bat dauka, jostailuz betea.

– Gela asko izateak esan nahi du, lan asko egin behar dela horiek ordaintzeko. Eta lan asko egin behar izateak esan nahi du, elkarrekin egoteko denbora gutxi dutela.

– Ezin al diogu irin normala bota?

– Integrala da normala.

– Zaharrentzako da.

– Zuri gustatzen zaizu ba.

– Besteei ez.

– Goxoa aterako da, zaude lasai.

– Gu izan al gaitzke aberatsak?

– Bagara –behin eta berriro hitz egiten genuen gai honen inguruan, baina Izadi ez zegoen amore emateko prest–. Bi logelako etxea dugu biontzat. Hozkailua beteta. Gutariko bakoitzak armairu propio bat dauka. Balkoi handi bat daukagu, marrubiz betea. Lau aitonaamona dituzu. Lagunak. Furgoneta bat. Zapata pare pilo. Ez dugu inoiz goserik pasatu. Ez gaude gaixorik. Udan oporretan joaten gara.

– Bai, ja!

Arrautzak irabiatzeari utz ziezaion keinua egin nion.

– Nik amaituko dut. Zoaz. Mesedez.

Ez nion begiratu. Nik ere banekien isiltasuna behar bezala kudeatzen. Izadik, egongelan zegoen ficusaren hostoak garbitu zituen banan-banan, kotoi eta urarekin, ume-umetatik egiten erakutsi nion bezala, lasaitu beharra zeukanean. Bukatu zuenean besarkatzera hurbildu nintzen, baina alde egin zidan. Gauza eder bat egin nahi eta haserre bukatu. Urrea zabor bilakatzen genuen alkimistak ginen.

– Etorri sukaldera, hau gustatuko zaizu!

Lasaiago zegoen eta egiten utzi nion. Bihotz formako moldean sartu genuen labera. Ateratakoan algarrobo krema ipini genion barnean eta, sari gisa, glas azukrearekin hautsezta zezan utzi nion. Gero apainapain jarri zen. Pekatxoak zituen sudurrean, eguzkiarengatik.

Berehala iritsi ginen planoari jarraituta. Bi globo gorri zeuden kanpoko hesian.

– Erre egin zen –esan zidan kotxetik irten aurretik–. Horregatik du mantxa hori –ispiluan begira jarri zen eta masaila atximurkatu zuen, keinu itsusi bat eginez–. Bizkarretik azal puska bat kendu zioten eta aurpegian jarri, baina hala ere nabaritu egiten zaio.

Euskal estiloko etxe zahar baina txukun bat zen, huntzak eta bugainbilea batek estaltzen zuten fatxada erdia, landaredia sarrerako hesiaren kontra hazten eta metatzen zen. Izadi aurretik joan zen opariarekin. Kolorezko globoek etxearen atzealdera eramán gintuzten, lorategira. Claudia berehala etorri zen Izadiren bila. Uste baino handiagoa zen, azal eta haragizko arabeskoek masailaren erdia baino gehiago hartzen zioten, eta buruko larruzal pixkatxo bat ere bai. Horregatik ez

balitz ume ederra zatekeen, begi beltzak eta ezpain mardulak. Begira gelditu nintzaion irribarrez. Mahai baten bueltan bi emakume zeuden, zigarro bana erretzen. Haietako batek, gu ikusitakoan, loreontzi baten kontra zanpatu zuen eta nigana etorri zen.

– Nieves naiz, Claudiaren ama, eta zu bere laguntxo berriaren ama izango zara, ezta?

– Izadirena, bai.

Rita Hayworthen orrazkera zeraman, ongi pentsatutakoa. Berak ere desitxuratuta zuen aurpegi erdia, eta adats ilun izurkara ur-jauzian erortzen zitzaion sarraskitutako zatiaren gainean, estali asmoz.

Mahaira eserita zegoen beste andrea bankutik altxatu zen, poltsa hartuta.

– Pare bat ordu barru etorriko naiz –pizina puzgarrian zeuden haurrengana joan zen–. Neskak! Jator ibili, gero azalduko naiz zuen bila –eta guregana jiratu zen–. Nieves, ekarri musu bat.

Lotsa eman zidan nik ere alde egin behar nuela esateak.

– Bizkotxo hau egin dugu Izadik eta biok –esan nion beste andrea desagertu zenean.

– Eskerrik asko! Hor ipiniko dut.

Walt Disneyren pertsonaiekin apainduriko zamaua eta platerak zeuden terrazako mahaian, plastikozko ontziak arto-krispetaz gainezka, sandwichak, ozpinkiak, litro eta erdiko freskagarriak.

– Bihotz formakoa, bai polita! –haurrengana zuzendu zuen begirada, profilez ez zitzaion deus nabaritzen–. Claudia, ikusi zer ekarri dizun zure laguntxoak!

Izadiz eta Cludiaz gain beste bi neskatila zeuden han, hamar-hamaika urtekoak denak.

– Kafetxo bat nahi? –eskaini zidan.

Irri egiten zuenean ahoa desitxuratzen zitzaion, goma batek ezpain batetik tiratuko balio bezala.

– Ez dut kaferik hartzen, mila esker.

– Agian mandaturen bat egiteko aprobeixatu nahi duzu, lasai hartu, konponduko naiz. Urteak udan betetzeak hori dauka, kurtsoan zehar baino jende gutxiago etortzen da festara, zer egingo diogu. Claudia ohitu da, nonbait. Baina hasieran, ez dakizu zer izan zen hura! Orain alaba arduratzen da hemen nor egongo den jakiteaz eta gonbidapenak egiteaz. Lautik hiru etorri dira –ahotsa apaldu zuen–. Eta ni pozik, jakina.

– Gelditu egingo naiz, inporta ez bazaizu. Ongi egoten da hemen.

Egurrezko bankuan eseri nintzen, bere aldamenean. Mahatsondo baten azpian zegoen, gerizpean.

– Etorri ginenean landatu genuen hori, duela zortzi urte, eta begira nola dagoen.

Gora begira gelditu ginen biak. Nievesek begiak itxi zituen. Narrasti bat zirudien horrela jarrita. Erredura bat zen. Lepotik behera jarraitzen zuen. Begiak itxi nituen nik ere. Eta hala egon ginen Nievesek hasperen egin zuen arte:

– Senarra tematu zen. Berak egin zuen egitura hori lau hesolarekin. Logroñoeko herri txiki batekoa da, umetan Bilbora joandakoa, eta etxeko patioan horrelako bat omen zeukaten. Bilbotik hona etorri ginenean jarri zuen, eta begira urte gutxitan nolakoa egin den—esan zuen, dilinda egiten zuten mahats mulkoei begira—. Arrazoi duzu, ongi egoten da hemen.

– Nik ez daukat eskurik. Landare-dendan gogorrenak erosten ditut beti, itxurari apenas begiratu gabe. – Nik ere ez pentsa... Arreta eskatzen dute, fedea eta konfiantza. Batzuk bakean utzi behar dira, zenbat eta kasu gutxiago orduan eta ederrago —azkabal luzeen artean tipulin bat hartu eta ahoratu egin zuen.

Gora begira gelditu ginen berriro ere. Mahatsondoaren adarrak gorriak ziren eta odola garraiatzen zutela zirudien. Enbor eskas eta ezpaldu hartatik hainbeste bizitza atera zitekeenik...

– Ederki pasatzen ari dira —esan nion piszinarantz jiraturik.

– Haurrak hurrekin ondoen. Zurea ere alaba bakarra al da?

– Bai.

– Orduan jakingo duzu zertaz ari naizen. Eta begiak itxi genituen.

Haurrak toaletan bilduta eseri ziren mahaira. Izadi, hezur eta azal, dardarka ari zen, ezpainak ubelduta. Arto-krispetak erakutsi zizkidan eta jateko baimena eman nion, okasio berezi bat zen. Ahalegin handia egin behar izan nuen eskutada bakoitzak gordetzen zuen pozoia ez neurtzeko. Bi ahizpek paperezko poltsa bat atera zuten aulki baten azpitik eta Claudiari eman zioten: tutu arrosazko gona zuen pijama bat. Claudiak berehala jantzi zuen.

– Ooo... Bai polita! —esan zuen Nievesek. Claudiak gonatxoa atondu zuen, eta besoak altxatu zituen balleteko figura bat itxuratuz eta bere ardatzaren inguruan jiraturik. Groteskua iruditu zitzaidan. Erantzi zuenean, masail bilakatutako bizkar txatala ikusi uste izan nion.

Izadik ere bere oparia eman zion. Zabaldutu zuenean besarkada batean estutu zuen Claudiak:

– Soy Luna!

Izadi gorritu egin zen. Bere besoak Claudiaren bizkarretik gora igotzen ikusi nituen, guztiz pausatu gabe. Claudiak Izadiren ama zirudien, nahiz eta hilabete batzuk zaharragoa soilik izan.

– Crema eman. Ez dirudi, baina eguzki honek erre egiten du —esan zien Nievesek hurrei crema pote bat jaurtiz.

Eta lasterka alde egin aurretik, Claudiari heldu zion. Nievesek txorrotada bat jarri zion eskuetan, eta honek gorputz osoan zabaldutu zuen. Amaitu zuenean, Nievesek aurpegian zabaldutu zion hatz txikerraz, leunki, erreduraren gainean bi geruza

jarriz. Claudiak begiratu egin zidan ni ere begira nengoen jakiteko. Irribarre egin nion... dena ongi dago, mundua perfektua da, zu perfektua zara adierazi nahian. Arnasa bota zuen.

Gortina moduan erabiltzen zuen ile xerloa belarri atzean ipini eta krema ipini zuen Nievesek, geruza lodiago bat jarritz erreta zuen aurpegiaren erdian. Orduan ere ez nuen egiten ari zenetik begirada apartatu, ez nuen nahi gaizki senti zedin. Bukatutakoan, ilea belarri atzetik askatu eta estilo handiarekin bota zuen aurpegi gainera. Irribarre egin zidan. Beheko hortzoia ikusten zitzaion irribarre egitean. Sobera gelditu zitzaion krema belaunburuetan zabaldu eta zigarro bat piztu zuen.

– Kontuz ibili behar dugu ditxosozko azal honekin, demonio –esan zuen.

– Nongoak zarete? –galdetu nion.

– Dagoeneko ez dakit!

– Hendaia ez da toki txarra berriro hasteko –esan nion.

– Hala esaten dute –esan zuen berak, neu halakorik behin ere entzun gabe nengoen arren– Gu ongi gaude, askoz hobeto.

– Jende asko dago berriro hastera etortzen dena –esan nuen, bion arteko espazioa hitzek bete zezaten–. Beste bizimodu bat, beste klima bat, beste ohitura batzuk, beste hizkuntza bat... Batzuetan ongi dago besteek esaten dutena ez ulertzea, ez duzu uste? Eta hori dena salto batera.

– Salto batera, bai. Eta zuek zer egiten duzue hemen? Zuek ere ez zarete eta hemengoak...

– Gu higiezinaren erbesterratuak gara, edo hori esaten dut galdetzen didatenean. Baina parte batean, zero kilometroaren bila etorri nintzen, badakizu haur bat izatea zer den...

– Bum! –egin zuen ozen–. Bonba bat zure egunerokotasunaren erdian, baina zuk bakarrik entzun duzu leherketa, ezta?

– Beste inork ez.

– Istripua eta gero aldaketa bat behar genuen.

– Istripu bat izan zenuten?

Erretzen ari zen zigarroa seinalatu zuen.

– Gaizki itzalitako zigarrokin bat... Eta etxeak su hartu zuen lo geundela.

– Aspaldi?

– Uda honetan bederatzi urte. Bilbon bizi ginen orduan. Auzoan ezagunegiak ginen eta ez zen erraza jendearekin... egotea. Lanetik etxera itzultzen ginen ahalik eta jende gutxienarekin gurutzatzeko, eta asteburuetan Logroñora joaten hasi ginen, inork ezagutuko ez gintuen inguru baten bila. Azkenean, aseguru etxea portatu egin zen, udaletxeak ere dirutxo bat eman behar izan zigun. Eta begira. Clementeri bururatu zitzaion hona etortzea. Decathlonen lan egiten du, bulegoetan, eta trasladoa eskatu zuen Irunera, eskatu eta eman. Ez gara gauzei hamaika buelta ematen dizkioten horietakoak. Oso apasionatuak gara. Eta

hemen gaude. Dibortziatuta? –galdetu zidan, asmakizunaren erantzuna etorri izan balitzaio bezala.

– Ez, ez... Izadi eta biok bakarrik gara.

– Hori ere ongi dago.

– Bai, dena bezala.

– Zerbait hartu nahi al duzu? Ni egarriak nago, garagardo bat hartuko dut, beste bat nahi? Moscatoa ere badugu. Ardotan hori bakarrik gustatzen zait niri.

– Garagardo bat hartuko dut nik ere, mila esker. Joan zenean haurrei begira gelditu nintzen. Ez nion esan ez nuela tantarik edaten, gustu txarrekoa iruditu zitzaidan, ez dakit ongi zergatik. Belarretan eserita zeuden. Claudiak hitz egiten zuen, ahizpak adi-adi zituen, baina Izadi bizkarka zegoen, lurrean zegoen zerbaiti begira. Hara joan eta aurrera begira eser zedin eskatzeko gogoari eutsi nion. – Eta okerrena ba al dakizu zer den? –esan zuen Nievesek etxe barrutik itzuli zenean–. Aurten berriz hasi naizela erretzen! Ez daukat erremediorik. Azkenean nire enpresa propioa martxan jartzen hasi naiz eta estresa, badakizu. Behintzat inork ez dit errietarik egiten, zailagoa izan behar du hogeit ureterekin hasten direnentzat, ezta? Zuk zertan lan egiten duzu, gehiegi galdetzea ez bada?

– Anbulatorioan, administrazioan. Ez da niri gustatzen zaidana, baina gauza onak baditu, buruan ez dit toki gehiegi hartzen. Udan oporrak batzeko aukera ematen dit, Izadirekin lasai egoteko, geure kasara.

– Denbora! Hori ongi dago. Neska horiei deituko diet, tarta jatera etor daitezen ama bila etorri aurretik.

Tragoa eman ondoren, aho ertzetik ihes egiten zion garagardoa lehortu behar zuela ohartu nintzen.

Nievesek kandelak piztu zituenean *Zorionak zuri* kantatu genion denon artean Claudiari. Izadik ezpainak mugitzen zituen baina hotsik atera gabe, sabeliztuna falta balitzaio bezala. Claudiak arnasa hartu zuen eta, masailak puztuta, su txiki haien parean jarrita itxaron zuen abestia amaitu arte. Sugarrek egiten zituzten figuren antzekoak zituen azalean estanpaturik, eta zegoen bezala, suaren atzean makurtuta, orbanak mugimendua zuela zirudien.

Txalo jo genuen itzali zituenean. Claudia kabitu ezinda zegoen. Hunkiberegia zela ikusten zen eta hori ere ez zen ona. Eskuak aurpegiaren alde banatan jarrita zituen, begiak beteta.

Donutsekin egindako tarta banatu zuenean zati bat eskaini zidan Nievesek:

– Urtean behin ez du kalterik egiten.

Ezetz esan nion. Gure bizkotxoak ukitu gabe zegoen. Trukean luzokertxo bat hartu nuen esker ona erakutsi nahian, nahiz eta baziren gutxienez hamar urte ez nuela halakorik jaten.

– Hara! –esan zuen Nievesek bozina hotsa entzun zuenean–. Zuen ama heldu da, jantzi egin beharko duzue!

Gominolak eskuetan alde egin zuten neskek, Nieves eta Claudia etxe atariraino joan ziren agurtzera. Izadirengana hurbildu nintzen. Aulki tolesgarri batean eserita zegoen, Claudiak erdizka utzi zion trentza heltzen.

– Ongi pasatzen ari al zara?

– Bai.

– Bai? Ez dirudi. Laster joan egingo gara.

– Oraindik ez –eskatu zidan.

– Oraindik ez, laster.

Claudia eta Nieves gerritik helduta etorri ziren, irribarrez, sekretu bat gordetzen ari balira bezala. Alde berean zuten erredura, baina urrunetik ez zitzairen deus igartzen.

– Claudiak ideia bat izan du –bota zidan, alabari hitza eman ez.

– Gelditu zaitezke afaltzen? Ilusio handia egiten dit. Gelditu, mesedez –esan zuen Claudiak, lurrian belauniko eskuak otoitz egiteko maneran emanda.

– Clemente berehala etorriko da janari txinatarrarekin, beti erosten du gehiegi eta bi egunez jan behar izaten dugu –lagundu zion Nievesek–. Denetarik jaten duzue? Entsalada bat ere egin dezaket bestela, edo tortillatxo bat, edo biak.

Izadiri begiratu nion. Zaila egin zitzaidan desio zuena antzematea.

– Mesedez! –esan zuen Claudiak–. Nire urteak dira! Masail tarratatuari begiratu nion.

– Zergatik ez –erantzun nuen bion izenean.

Izadi gure bizkotxoaren parean jarri zen, begirabegira. – Nahi al duzu pusketak bat? –galdetu zion Nievesek–. Ez izan lotsarik, neska –gure bizkotxotik hiruki bat moztu zuen eta eman egin zion.

Izadik gogotik jan zuen. Hunkitu egin nintzen. Nievesek ere zati bat hartu zuen eta koska txikiak egin zizkion, eskua aho parean jarrita papurrei irteten ez uzteko.

– Mundiala dago. Errezeta eman behar didazu –esan zidan–. Txaketa bat nahi? Edo barrura joango gara? Freskatu egin du.

Jasotzen lagundu nion eta etxera sartu ginen. Haurrak goiko pisura joan ziren lasterka. Nievesek sukaldera egin zuen ontziekin, ni egongelan bakarrik utzita. Gauzez beteta zegoen. Altzari klasiko ilunak zumitzezkoekin nahastuta, koloretako kuxinak, landareak. Behin-behinekoa zirudien ordena arraro bat zen, baina txukun eta garbi zegoen. Mahaitxoaren gainean lau mando zeuden tapete baten gainean. Traste elektronikoen ugarien argitxo gorriak ikus zitezkeen nonahi. Ele itxurako sofa batek hartzen zuen espazio gehien, hormari itsatsitako telebista erraldoi baten parean jarrita. Beheko suaren zuloan panpinak. Gainean, marmolezko hegian, nonbaiteko souvenirra zen maskorrekin egindako sagu bat eta ondoan oinak kiskalita zituen metalezko kristo gurutziltzatu bat. Egongelara itzuli zenean baztertu egin nuen begirada.

– Nork daki jotzen? –galdetu nion, sofa atzean zegoen Yamaha teklatua seinalatuz.

– Claudiak eta biok pixka bat –esan zuen Nievesek—. Baina benetako artista Clemente da. Lehen –eskuarekin iragan urrun bat irudikatu zuen, sutearen aurretikoa, ulertu uste izan nuenez— talde batean jotzen zuen. Oso ongi kantatzen du, baina orain etxekoentzat bakarrik egiten du, pena da.

Sofan eseri ginen. Sandaliak kendu zituen eta eroso eseri zen. Nik ere gauza bera egin nuen. Goiko pisuan batetik bestera zebiltzan haurren urratsak entzuten ziren. Lasaigarria zen. Dena aldatuko duen unea, pentsatu nuen, zu ez zauden eta zure alaba zuk nahi zenukeen hura bilakatzen den unea. Orduan, kristalezko mahaitxoaren gainean beraien argazki bat zegoela ikusi nuen, hirurena. Zaila zen ez begiratzea. Ezeroso sentitu nintzen, nahiz eta Nievesek ohituta egon behar zuen. Areago, agian plan baten baitakoa zen guztia.

Eskuetan hartu, eta niri erakutsi aurretik, kristal gainean putz egin eta soineko muturrarekin garbitu zuen.

– Hau da gelditzen zaigun argazki bakarrenetakoa. Estudioko argazkia zen. Lurrean eserita zeuden, oinutsik eta zuriz jantzita. Nievesek soineko udatiarra zeraman, begizta bat eskotean, garaiezina zirudien irribarrea. Mediterraneotar edertasuna zuen, haragitsua, erraza. Gizona ez nuen horrelakoa irudikatzen: eguzkiak beltzarandutako azala zuen, kopeta zabala, gainetik soiltzen hasitako ilea konpentsatzeko bezala melenatxo duin bat, alkandoraren hiruzpalau botoi zabalik, galtza barrenak tolesetan jasoak. Handia zirudien, besoaren gainaldean eskorpioi baten tatuaiak zuen, larruzko eskumuturreko batzuk. Claudia zen serio zegoen bakarra, urte eta erdi inguru izango zuen.

Azal eta oihal haiek guztiak sutan irudikatu nituen tabernetako aho-zapien moduan.

– Bai familia ederra –esan nuen.

– Bai, ezta? –beregana jiratu zuen argazkia eta begira gelditu zitzaion—. Horrelakoak ginen. Pelikula bat ikusten ari ginen senarra eta biok, eta loak hartu gintuen sofan. Mirari bat izan zen bizirik irtetea. Eta Claudia... Bera bai miraria, fondoko gelan egiten zuen lo! Nire senarrak atera zuen... –ilezko errezelari eragin zion koket—. Nik ikusi nuen sugarren artean pasatzen eta bueltan etortzen, manta batean bilduta zuela umea, sutan biak... Ñabardurak niretzat gordeko ditut, sinetsiezadazu, hobeto horrela.

– Claudia behintzat ez da ezertaz gogoratuko...

– Zorionez ez... Dena galdu genuen. Etxea, arropak, argazkiak, oroitzapenak, Clementek eta biok elkarri idatzitako gutunak... Asko idatzi izan diogu elkarri, soldaduska garaitik hasita, pentsa, soldaduskatik etorri zenean Ingalaterrara joan zen ingelesa ikastera... Orain edozein ume-mokok egiten du hori, baina garai

hartan ez. Hamazazpi urtetatik elkarrekin, pentsa. Dena galdua. Ez dakizu zer den hori... Dena galtzea... Dena!

– Eta begira orain –esan nion, zer zen oso ongi ez nekien zerbait adierazi nahian.

– Begira orain –baieztatu zuen berak, konforme–. Oraindik amesgaiztoak izaten ditut egongelan geneuzkan gazazko gortinekin... Haizeak harrotzen ditu eta etxe barrurantz sartzen dira, han daude flotatzen, fantasmak dirudite nire buru gainean ni sofán nagoen bitartean, batzuetan telebistari begira, besteetan haurra aldamenean lo daukadala, eta kolpetik sutan daude... Orduan esnatu egiten naiz... –begiak zabaldu zituen eta tente jarri zen sofán–. Isiltzera noa, niri ez zait eta besteen ametsak entzutea gustatzen, seko aspertzen nau. Zuri?

– Ez dakit, ez dut inoiz horretan pentsatu.

– Gorroto ditut besteen ametsak.

– Niri besteen oporraldiekin gertatzen zait hori. Barre egin zuen.

– Berriro jaio zineten. Meritu handia daukazue.

– Bai, baina gauza bat esango dizut: ez digu ezertarako balio. Normala denetik aparte bizi gara, arauz kanpo, eta jendeak ezin du disimulatu. Karitatea ez denean biguina da, eta badira beraien ontasuna gurekiko adeitasunarekin frogatzen dutenak ere, miserable asko dago munduan, ezin duzu imajinatu; jende ona ere bai, justuak izateko hori ere esan beharra dago, jende ona egon badago.

Ni talde horietako bakar batean sartuko ez banintz bezala hitz egin zidan, arraroa izan zen.

– Baina niri Claudiak ematen dit beldur gehien, nola moldatuko den aurrerantzean, eta hori zirujauak sorgin hatzak dituztela, ikusi behar zenuen... Begira zein polita zen... Eta da... niretzat behintzat.

Irribarre barkaberari eusten ahalegindu nintzen.

– Oso polita da. Baliabide asko dituen neskatxa dirudi gainera. Izadi txora-txora eginda dago berarekin. Gustatu egin zitzaion hori entzutea.

– Bai, baditu.

– Eta alaia...

– Bestea ez dakit, baina hor bete-betean asmatu duzu.

Clementek txistu jo zuen etxeko atea ireki bezain pronto, eta Nievesi keinua aldatu zitzaion, sotilki, baina nik nabaritu egin nuen, irri ezdeus batek irten zion, lasaituzkoa edota pozezkoa iruditu zitzaidana. Pentsatu nuen agian ordura arte ez zela ongi egon nirekin, eta bat-batean traban sentitu nintzen.

Poltsaz kargaturik iritsi zen. Aurpegi osoa zuen erreta, eta kurioski, zati bat izateak baino inpresio gutxiago eragin zidan. Begi ertzak urtzeko prozesuan bezala zituen, baina gainontzean, erredura uniforme zen, testuraz eta kolore aldaketa leunez beterikoa. Bostekoa luzatu zidan. Eskua ere erreta zuen. Nievesi muxu luzea eman eta ilea atondu zion.

– Gonbidatuak gainera, hau poza –esan zuen askatu zenean–. Non dago gure aingerutxo?

– Goian, piraguako lagun berriarekin –erantzun zion Nievesek.

Senarra argazkian baino soilduagoa zegoen, motots batean zeraman bilduta urdindutako ilea. Beste ezer esan gabe, jaka kendu zuen, pertxeroan ipini eta pianora eseri zen. Alkandoraren mahukak jaso, bi botoi askatu eta hatzak mugitu zituen airean. Eskorpioia sutatik libratu zela ikusi nuen.

Zorionak zuri-ren lehenengo notak jo bezain pronto jaitsi zen lasterka Claudia. Atzetik besarkatu zuen fuerte aita. Nieves zutik gelditu zen egongelaren erdian, harrotasunez begira. Izadi ere jaitsi eta nire ondoan eseri zen sofan; besoa pasatu nion sorbalda gaintetik eta nigana erakarri nuen. Kantua jotzen amaitu zuenean, Clementek galtzaren patrikatik oihalezko mukizapi bat atera eta aurpegia lehortu zuen. Nievesek garagardo fresko bat ipini zion teklatu gainean, deus galdetu gabe, eta trago luze bat eman ondoren teklatura itzuli zen.

– Is this the real life? Is this just fantasy? Caught in a landslide. No escape from reality... –kantatu zuen a capella eta falsetoa eginez–. Open your eyes. Look up to the skies and see... I’m just a poor boy. I need no sympathy, because I’m easy come, easy go...

Nievesek eta Claudiak elkarri begiratu zioten familia barruko koderen bati segika akaso.

Izadi eta biok ere hurbildu egin ginen. Clementek Bohemian Rhapsody-ren lehen akordeak jo zituen, burua batera eta bestera astinduz.

– Mamaaa... just killed a man... Put a gun against his head. Pulled my trigger, now he’s dead.

Aurreikuspen guztien kontra ahots miresgarria zuen.

– Mamaaa... life had just begun... But now I’ve gone and thrown it all away...

Lehenengo ahapaldiaren ondoren gugana jiratu zuen burua, irribarre nekatu batekin. Ordurako bere inguruan geunden denok, sofaren kontra bermatuta, ama bakoitza bere alabarekin dantza txikian, isilik, hain izaten ari zen hauskorra eta ederra une hura.

Bukatu zuenean bertan egon zen eserita momentu batez, guri bizkarra emanda, geldirik. Gu ere halaxe gelditu ginen, mugitu ezinda.

Jiratu zenean gaztetuta ikusi nuen, denok geunden gaztetuta eta arinduta.

Garagardoa bukatu zuen.

Nieves zigarro bat erretzera irten zen terrazara.

– Etorri, nahi baduzu –esan zidan lehenago.

– Ez, ongi nago hemen –erantzun nion. Gero Clementerengana jiratu nintzen–: Zuk ez al duzu erretzen?

– Vade retro –esan zidan, oinetakoa erortzen utzi eta txankletak jarri bitartean–. Garagardoa nahi beste, whiskiren bat ere tarteka bai, baina tabakoa! Zoaz hiri

europarretara, benetako Europara, Parisera, Bruselara edo Bartzelonara, ea zenbat erretzaile ikusten duzun han; herrialde azpigaratuetan ordea bai, saldoka –diskurtso hura behin baino gehiagotan errepikatu izanaren traza hartu nion, berak ere aspertuta zirudien bere hitzekin–. Tripa-zorriak ditut –esan zuen, tonua aldatuz eta sabela ukituz–. Eta zuek, neskak?

Gero zimiko egin zion Izadiri gerrian.

– Ume honek bizikleta batek baino haragi gutxiago dauka-eta! Ez dizute jaten ematen ala?

Izadik eskapo egin zion, edukazioa galdu gabe, eta Claudiaren atzetik igo zen goiko pisura.

– Ahots ederra duzu –esan nion Clementeri–. Harrituta geratu naiz, egia esateko.

– Ez zenuen espero, e! –esan zidan pozik, eta begira-begira geratu zitzaidan nik nahi baino luzeago.

– Ederra eta berezia.

Irri-karkaila egin zuen, *ederra* eta *berezia* errepikatuz.

Begiradari eutsi nion, serio, benetan ari nintzela jakin behar zuen, garrantzitsua zen niretzat. – Lastima ezkondata zaudela, bestela zure ezkontzan kantatuko nukeen...

– Ez nago ezkondata.

– Ez zaitetz haserretu –esan zidan eskua luzatuz–. Ez dago haserretzeko motiborik. Ez dut nire burua serio hartzen, hobeto doakit horrela.

Esku leuna zuen, hatz lodiarekin esku-gaina laztandu nion ahal izan genuen luzeen. Nieves entzun genuenean askatu egin ginen.

Ordurako txinatar janari usainak egongela gairatua zuen. Nieves loredun hule batekin sartu zen eta egongelako mahaitxoaren gainean zabaldu zuen. Gero, han jarri zituen poltsetatik ateratako ontziak eta sofako kuxinekin inguratu zuen mahaia.

Konturatu nintzen Clementeren etorrerarekin txikitu egin zela, hauspoa galdu izan balu bezala. Hala ere ez zirudien ez triste ez haserre, lasai baizik.

Claudia eta Izadi arduratu ziren estalkiak kentzeaz eta era guztietako jaki likatsuak agerian uzteaz. Clementek Moscatoa ekarri zuen. Lurrean eseri ginen denok, gu sardexkekin, haiek txinatar makilatxoekin. Nievesek begi bat kliskatu zidan topa egin aurretik. Gantxo batekin jaso zuen ilea, erredura agerian utzita. Berpiztuta zirudien berriro ere. – Urte askoan, polit hori! –esan zion Clementek Claudiari. Begiak beteta zituen, baita Nievesek ere.

Cludiak hatz puntak musukatu zituen eta putz eginez bidali zizkien musuak gurasoei.

– Oso harro gaude zutaz –esan zion Nievesek, eta musu bat bidali zion airez.

Izadi platerera begira zegoen. Kokotsetik heldu nion burua altxa zezan. Masaila laztandu nion.

Jatekoa ez zen espero bezain dramatikoa izan. Postrerako gure bizkotxo atera zuten eta denek ospatu zuten. Familiako bat gehiago sentitu nintzen. Ongi pasatu genuen. Uste dut beraiek ere ongi pasatu zutela.

Agurtzerakoan besarkatu egin nituen.

– Mila esker, benetan –bihotza ukitu nuen.

– Eskerrak zuei –esan zuen Nievesek.

– Eta segi jotzen, zoragarria izan da –esan nion Clementeri.

Ile adats bat belarri atzean jarri zidan, naturaltasunez. Nievesek begiak itxi zituen, onarpena adieraziz bezala.

Hesiraino etorri ziren. Clementek gerritik heltzen zion Nievesi, eta honek bere sorbalda gainean jarri zuen burua. Ez zen promesik egon, inoren partetik. Kopilotuaren aulkian esertzeko eskatu nion Izadiri. Eskutik emanda egin genuen bidea. Arratsalde luze hartan oso berezia zen zerbait aurkitu uste izan nuen, hondartzan maskorrak biltzen sentitu izan dudana liluraren pareko zerbait, eta eutsi egin nahi izan nion, eskapo egin ez zezan, betiko nire barruan bizi zedin, aurkikuntza gunetik apartatu ahala, poliki-poliki, lilura desegingo zela jakin arren.

Hitzatzea

Literaturak intriga eta istorioak eskaintzen dizkigu; idazleen tekniken emaitzak eta efektu bereziak; idazle batzuen trebezia mirestea; begi eta belarrien gozagarri diren asonantzia, aliterazio eta abarren edertasuna; pentsamendurako eta hausnarketarako akuilua; lagunekin eta familiarekin eztabaidatzeko gauzak ("Pertsonak ondokoarengatik behar duena: ulertzeko aski antzekoa den zerbait, arreta erakartzeko aski diferentea den zerbait, eta miresmena sorrarazteko aski ederra den zerbait" – T.S. Eliot, *Kulturaren definizioarentzako oharra*). Eta, idazle batzuen eskutik jendea ezagutzen dugu, idazle horien pertsonaiak, alegia. Bestela ezagutuko ez genukeen jendea.

Guztiok abiapuntu ezberdinak ditugu, eta bide ezberdinetan ibiltzen gara. Beraz, irakurle batzuek Eider Rodriguezen hiru ipuinotan dauden pertsonaia batzuk erraz identifikatuko dituzte: Saioaren sentazioak eta oroitzapenak familiako baserrira itzultzen denean, Londresen urte batzuk eman ondoren, eta hiri horretara itzuli baino lehen; Telmok egoera formaletan duen ondoeza, emaztearengatik sentitu ezin duen pasioa, eta, senar-emazteak banatu ondoren, oraindik emaztearekin duen menpekotasuna; alaba gehiegi babesten duela jabetzen den Izadiren ama, hori gutxiago egiteko egin nahi duen ahalegina, eta beste heldu batzuekin konektatzeko duen beharra.

Beste irakurle batzuk ez dira hain erraz harremanetan jarriko Eider Rodriguezek sortzen edo asmatzen dituen –bizitzara ekartzen dituen– pertsonaiekin. Edo baliteke irakurle batzuei pertsonaia horiek ezertxo ere ez esatea. Baina fikzioan horrelako pertsonak ezagutzeko aukera dugu, eta mundua haien ikuspuntutik ikustekoa. Eta abagune horrek mundua bestela eskuragai izango ez genukeen era batean –eta, ausaz, bururatu ere egingo ez litzaigukeena– ikustea ahalbidetzen digu.

Eider Rodriguezen fikzioak idazleak bere sorterriaren gainean duen ikuspuntua ere eskaintzen digu: Nafarroa, edo Euskal Herria, zazpi probintziako nazio bat, hiru lurralde ofizialetan banatua. Kultura baten erdigunea –kultura zentzu zabalenean– kultura horren hizkuntza da, eta, gero, kultura osatzen duten kultur arlo guztien nahasketa. Nafarroan, esaterako, kirolak kulturaren %40a izan dezake; bertsolaritza %15a; literaturak %5a... Eta kultur arloen nahasketa eta horien garrantzia erlatiboa aldatu egiten dira kultura batetik bestera. Baina leku guztietan oso gauza antzekoak sentitzen ditugu –gosea, alaitasuna, asperdura– eta, horregatik, euskaratik itzuli diren ipuinak erabat ulergarriak eta hurbilak izan daitezke ingelesez irakurtzen dituztenentzat.

Eider Rodriguezek ez ditu bere ipuinak modu txukunegian ixten. Gure egunak modu perfektuan bukatzen ez diren bezala, idazleak ez du amaiera tradizionalik eta perfektuegirik behar. Idazle honen pertsonaiek benetakoak dirudite, nahiz eta, benetako bizitzan bezala, inortxok ez lukeen nahi haiekin denbora asko igarotzerik.

“Munduak Nafarroa miretsiko du”, dio Fernando erregeak Shakespearen *Galdutako amodioen penak* antzerki lanean. Dena dela, Nafarroan, beste edozein tokitan bezala, era askotako jendea dago. Eider Rodriguezen lanak pertsonaia horien egoerak, esperientziak eta sentimenduak ikusteko leiho batzuk irekitzen dizkigu, literatura handiak bakarrik egin dezakeen moduan, eta literatura mota batzuek bakarrik egiten duten bezala.

Aritz Branton
Donostia, 2018ko ekaina

EIDER RODRIGUEZ

birthday party

[Foreword](#)

[The Third Present](#)

[Capitalism](#)

[Birthday Party](#)

[Afterword](#)

These short stories were first published in these collections: *Haragia* ('Flesh' – 2007), *Katu jendea* ('Cat People' – 2010) and *Bihotz handiegia* ('Too Big a Heart' – 2017), respectively.

Booktegi would like to thank **Elkar** and **Susa** for their very kind permission to republish and translate them in this collection.

Cover:
Ramon Zabalegi

Translators:
Idoia Etxeberria, Sarah Turtle, Aritz Branton

Foreword

A Dialogue with the World

I am changeable, adaptive and sceptical by nature, but I can say this without many doubts at all: Eider Rodriguez is one of the most stimulating writers of her generation, if not the most stimulating. The fourteen years since *Eta handik gutxira gaur* ('Today comes shortly after then'), her first collection of short stories, have gone by quickly. And in that time Rodriguez' ability to tell stories has grown and grown.

The three short stories which we have chosen from the collections *Haragia* ('Flesh' – 2007), *Katu jendea* ('Cat People' – 2010) and *Bihotz handiegia* ('Too Big a Heart' – 2017) bear witness to that. A short story from each book. But they are all short stories, the genre which Eider Rodriguez has always focused on, almost going against the stream in this time when writing novels seems to be a requirement.

"The Third Present", "Capitalism" and "Birthday Party". I am not going to talk about these stories in detail, which might spoil readers' pleasure, but just let me say that they are representative of Rodriguez' work. Words, gestures and silences which have to be interpreted; people – generally men – who are looked after by other people – women, strangely enough; people who feel part of some realm somewhere; a father and son who have not touched each other over 45 years; the reign of silence in which a daughter takes refuge; families which live outside the norms, outside the normal.

As a sort of supplement, there are echoes from Eider Rodriguez' work in the film *Amama*; sports players who have entered our imagery a hundred times; people who like earning or winning money and piling it up; the smell of meadows and buried mystery which Rafael Chirbes recalls in his work. And landscapes we are familiar with, boundaries described from Hendaia, but without knowing exactly where we are when we look at Irun from Hendaia, whether in Hendaia, or in Irun itself.

As Rodriguez's editor, Gorka Arrese, put it: "This is when the steps after editing have to be taken, the time to take our culture to the centre of our society, to structure society around our culture and start a dialogue with the world." What could be better than these translations' modest contribution to that reaching out to the world.

Aritz Galarraga
Irun, June 2018

The Third Present

Seeing the Basque flag in a corner at the airport – surrounded by metal posts, lit up by the sun and blown around by the wind – gives her a strange sensation, and her lungs seem to grow smaller. She left her parents' home just four years ago, back when she was a young girl, but by then she'd already lost her home's scent of snow and smell of wood.

She phones home three times, and when her mother answers it sounds as if Mum hasn't uttered a word for months.

"You there, then?"

"Yes. Ask Dad if he can come and pick me up from Zarautz."

"I'll ask him. Call again in five minutes; these gadgets are expensive."

Her father reaches Zarautz at the same time she does; there he is in his van, the back of it full of sacks.

"Get in", he says, in his voice like a hammer on an anvil.

There's a ballad by Ganbara on the radio.

"You've lost weight."

"Long time no see", his daughter answers, dwelling on each word. And after that there's almost complete silence in the forge, only the sound of the liveliest flames trying to get out of the kiln.

Saioa has her suitcase between her legs, and she looks out at the green countryside as they rumble up the track, out at the compact houses on the hills, and then a well-loaded chestnut tree breaks the silence with its branches hitting the van.

"Your uncle's killing some geese. Been working hard recently; got to make the most of that."

On the last slope up to the village the army of chestnuts really goes for them, their prickly spikes turning against Saioa and her father.

"Got to come for chestnuts tomorrow."

Saioa takes that as an invitation.

"There aren't any chestnuts in London, you know?"

Her father steps on the brake, and the van screeches to a halt in the village square.

